

[ushuaia]

DOSSIER DE PRENSA

NOVEDAD EDITORIAL MAYO 2012

KIMUEN HEZIKETA

Joxe Mari Gabilondo



[ushuaia]

Fecha de puesta en venta: **Mayo de 2012**

15x21,6 | 94 pp. | Rústica con solapas | Colección: Poesía

P.V.P.: **9 €** | P.V.P. e-book: **4,5 €**

ISBN: **978-84-15523-16-1** | ISBN E-BOOK: **978-84-15523-17-8**

El libro Bizi-pusketatxoak dituzu hortaz, hemen. Hogei urtez, bizitzan bidezidorretan batutako ispilu pusketak. Bat egin itzazu neure burua ikusteko, bere gauza on eta txar guztiekin, olerki on eta txarrekin, bertso on eta txarrekin, irri eta malkoekin, gozo eta gaziekin, . . . eta ziurrenez konturatu zara zeure isla ere izan daitekela ispilu horien batuketa.

Ez dela horren berezia, eta aldi berean zeinen berezian den.

Eta hogei urte hauen atzetik, beste hogei datozela, ispilu pusketatxoak jasotzeko eta zeure buruari so egiteko, gazi-gozoen orbainei irri egiteko.

MALKOAK

Elur maluta hauek
malkoak dirudite,
baina noren malkoak
ote?

Hamaika ziegatan,
hamaika Aranjuezen
dauden ama alaben
malko hotzak
ote?

Zenbat Ortzadar
ziega ilunek
koloreak eragozten?
Zenbat maluta
geure bihotzak
izozten?

Zenbat amets
iluntasunak itzal
ezin dezakeenak
inoiz!

El autor **Joxe Mari Gabilondo**. Bartzelonan erabaki zuten eguzki izpiek nire begi-niniak zauritzea. Urtarrilaren 22a zen eta 1900 urteak 74 beteak zituen iada. Bartzelonako ekiak euskaraz jakin ez eta Bergarara joan nintzen urtebete beranduago, Aitaren herrian Ikastola bazen eta hantxe igaro nuen haurtzaroa, Bergarako plazatik ikastolara eta handik seminariora Anaia txikiaren eskutik, gure garaiko (gerora kuadrilako) gehienek egiten zuten moduan.

3. BUPen piztu zitzaidan buruan Euskal Filologia ikasteko gogo eta horrela, etxean makina bat tira-biren ondoren (“euskaraz jakinda zertarako ikasi behar duzun Euskal Filologia ez da erraza ulertarazten kooperatiben bailaran) eta Amaren babesarekin Gasteizerat habitu ginen lau lagun. Oinarrizko kanpamendua Pio XII kalean genuen eta bertatik eskalatu genituen geure bizitzako tontorrik garrantzitsuenak: Prontzik ingenieritza, Eduk magisteritza eta, Inakik eta Joxe Marik Euskal Filologia. Karrerako 3. urtean AEKko irakasle egin eta bertan 12 urtez lanean aritu ondoren, egun Nafarroako bigarren hezkuntzan irakasle 5 urte daramatzat.

Para más información o entrevistas con el autor:

Prensa Ushuaia Ediciones

Teléfono: 977 881 719

Correo electrónico: info@ushuaiaediciones.es

